

### Bang-bang txik-txiki bang-bang (DURANGO, 2009/09/26)

Gehiago nahi dot eta  
igo bolumena,  
gorputzek eskatzen deust  
martxa, martxa.

Bang-bang txik-txiki bang-bang  
buelta ta buelta eman,  
bang-bang akabu bako  
dantza, dantza.

Ta barre zoroak, jaja, jaja,  
ta zure posturak, sua.

Zelan begiratzen dozun  
ta zelan mugitzen zaren,  
gauaren erregina,  
martxa, martxa.

Bang-bang txik-txiki bang-bang  
erritmoz beteta dago,  
bang-bang akabu bako  
dantza, dantza.

Ta barre zoroak...



### Bizitzeko gogoa (DURANGO, 2009/09/26)

Denbora aurrera doa  
erlojuaren orratzak  
tik, tak.

Ezin da atzera begiratu,  
ta ezin da kontrolatu  
geroa.

Horregatik lau haizetara  
askatu nahiko neuke dekoten korapiloa,  
eten barik ittoten nauen soka hau  
apurtu egin behar dot.


Egin nahi dodazan gauza guztiek egin.  
Erratzeko aukera bat eduki nahi dot.  
Ta indarra dagoen artien, bidiek zabalduz,  
nigan sinestu.

Ta begixek itxiditze  
sentitzen dot barruen  
itxaso bat kolpeka; bai.

Zelan dekoten  
askatasun beharra,  
bizitzeko gogoa.

Laino guztien gainetik  
eta sasiken azpitik  
bizi naz.  
Ta nago hain mugaturik  
ezer esan ezinik,  
ixilik.

Horregatik...



### Lorak eskeintzen

(DURANGO, 2009/09/26)

Gu bixok, jolasten ezagutu gifen  
gu bixok, jolasten lagun egin gifen.

Eta parkien alkarren alboan jarritte.  
Denbora, ez zan esistitzen guretzat.

Urtiek eurrera egin eben eta  
alkarren ondoan jarraitzen genduan  
eta kalien alkarren eskutik joan gifen  
baibia egun baten, ifiori ezer esan barik  
infernu ezagutu zendun  
biziziek ihes egin eutsun  
urrundu egin ziñen eta orain.

Zutunik nago  
zuri lorak eskeintzen  
amaitu jatzu bizixe  
sentitzen nago  
zuri lorak eskeintzen  
amaitu jatzu bizixe.

Denborak eurrera egingo dau baiña  
zu nire bizixen faltau egingo zara  
ta nire bizixe, ez da izango bardine.

Pena bat eroan beharko dot bixotzien  
eta lau galdera:  
zergatik orain?  
zergatik infernu ezagutu?  
zergatik lagun guztizek ahaztu?  
zeure burueri... zer egin deutsazu?

Ta hemen nago  
zuri lorak eskeintzen  
zer egin deutsazu bizixeri  
sentitzen nago  
zuri lorak eskeintzen  
apurtu jatela bizixe.

### Gaur gure gaba da ta

(BILBO, 2009/08/17)

Aidien doan mosue  
zeuretzat, politte  
hartu eta egin eizu zeurie.

Itxaropenaren truke  
dana daroa debalde  
zabaldu eiotzazu zeure atie.

Aidien dau galderie  
sutan ambientie  
ez eitzazu, politte, ezetzik esan.

Noiz itzaliko zain nago  
barrutik jatorten su hau  
badakizu zer eskatzen etorri nazen.


Gaur gure gaba da ta  
zatoz ogera  
itzali daigun sue  
gaba laburre da ta  
besterik ez da behar  
zatoz ogera  
gaur gure gaba da ta.

Eitteko dekoguzen gauzek  
danak egingo doguz  
ez einozu gaur gabaz alperrik galdu.

Apurtu eizuz katiek  
ta eitzazu barretxu bet  
atara dekozun enkantue, joder!

Gaur gure gaba da ta  
zatoz ogera  
itzali daigun sue  
gaba laburre da ta  
besterik ez da behar  
zatoz ogera  
gaur gure gaba da ta.





**Apirlaren 27**  
(DONOSTIA, 2009/08/13)

Apirlaren 27,  
zelan joatzu zuloan?  
Amak argalegi zagozela dinon arren,  
badakit ondo zagozela, betikoa zarela.

Kilometroak egin genduzen batera  
eta zenbat gau lo egin barik.  
Isil unedak (isiluneak) bide bakartietan,  
ze onak ginен momentuaen zain.

Ta zelan aldatzen diren gauzek, zelan,  
zure begixek preso dagoz orain anal.

Heldu direnak jezarrí dire eta  
mahai ingurue ardo gorriaz jantzi da.  
oroitzapenak alkoholetan bustitze,  
etxekoen usaine. Uh, uh!

Ta zelan aldatzen diren gauzek, zelan,  
zure begixek preso dagoz orain anal.  
Ta zelan aldatzen diren gauzek, zelan,  
nire begixek urrun dagoz orain anal.



**Hara honien**  
(GERNIKA, 2009/08/14)

Argixe dator  
taula ganera  
eta bixotzaren taupadak  
ehunera doaz.

Sentimenduek  
azal ganien  
hankak dardara batien da  
zuen ihiuek.

Gabaz bidien / hara honien  
mile «mobide» / paseu ondoren  
Al! Momentu onak eta txarrak  
trumoi da bare.

Ahaztutene  
eta bagoaz.

Ea kolorez jazten dogun gure gaba!  
Eta zuen arimek suspertzen doguzan!

Eztau tranparik  
misteriorik  
gu honantz garenak gatoz da  
sentitzen gara  
leku bakotzien lekuo  
beti ordue noz helduko  
eta heitzen jakunien  
hegaz eitteko ordue.

Zentzazioak eta bagoaz... Ea!

**Pailazo**  
(BILBO, 2009/08/17)

Pailazo bat ei naz,  
burubako pertsonaje bat,  
ez nazela oso normala dinoe,  
ez deust ardure.

Arraro xamar bizi naizela,  
inungo lotsarik ez dekotela,  
ez ahal da izango, suposatze bat,  
euren lotsetan bizi direla?

Ez dago dirurik  
barrie ordaintzekorik  
horregaitik  
ez zaitut maite nik.

Sufritzen badakit,  
zuk ez, ordea, beraz,  
amateu argixe ze ni banoa.

Albotik pasatzean  
hasten dire zurrumurrek,  
jendien mingainetan bizi gara,  
zer esanik ez da falta.

Eta zuri zelan joatzu,  
zuri be berdine pasetan jatzu?  
Ez ahal da izengo, kasualldadez,  
zeure lotsetan bizi zarela?

Ez dago dirurik...

Inpernuen ate joka  
(DONOSTIA, 2009/08/13)

Gazte zara  
gazte zoro  
ta «Mister Jab»  
esaten deutsue.

Bixotz ona dekozun arren  
ea espabiletan zaren  
pekatuz-pekatu zabiz, itsu,  
kontrolik barik.

Dan, dan! Ate joka  
Dan, dan! Inpernuko atien  
noz sartu itxeraiten  
Dan, dan! Ate joka  
Dan, dan! Inpernuko atien  
Zeure txandie itxeraiten.

Gaztie naz  
gazte zoro  
ta «Mari Jai»  
esaten dostie.

3ak eta 10ien  
«Su Txiki» sarratzen danien  
bialdu mezu bet eta han geldittuko gara.

Hantxe! Egongo naz  
Dan, dan! Inpernuko atien  
noiz heldu! Itxeraiten  
bertan! Egongo naz  
Dan, dan! Inpernuko atien  
trago batzuk konpartitzen nauen artien  
disko inpernuko atien lagun artien.

Zerure joatje gatz dago,  
bizi bakar bat baino etzau  
horregaitik hilko naz ni bizi nazen lez.

Eta! Hemen nago  
Dan, dan! Inpernuko atien  
nire txandie itxeraiten  
Dan, dan! Ate joka  
Moskor! Moskor egindie  
disko inpernuko atien lagun artien  
disko inpernuko atien bota artien.



### Gatibu gara:

Gaizka Salazar: baterixe.  
Alex Sardui: ahotsa.  
Mikel Caballero: baxue.  
Haimar Arejita: gitarrie.

### Zuzenekoetan:

Gitarra eta ahotsa: Iñigo San Anton.  
Soinu teknikaria: Iñigo Etxebarrieta «Pitu».  
Argi teknikaria: John Luhman.  
Esesenatokiko teknikaria: Xabi «Factory».  
Instrumentu teknikariak: Borja Alvarez «Kalifa»,  
Kerman Alvarez «Perru», Edorta Apraiz «Eduard».  
Muntalia: Factory.  
Management: Baga-Biga.

Gerra gogoa  
(DONOSTIA, 2009/08/13)

Jadanik argirik ez da gelditzen  
geure arteko baziloie bakarrik  
ta hotz egon arren kale kantoietaen  
hotzik ez dago, ez, gure zanetan.

Gustoren dekotazan praka zaharrak  
makintxu egunsentitzen ikusi dabez  
ordu honetako ixilasunen  
barriek kuadrilakoen artien.


Ta ze ondo sentitzen nazen!  
«Mekago» en dos! Etxera ni pa'Dios!  
ez dago hau gelditzerik  
ez dago gu gelditzerik  
hemendik ez noa.

Gerra gogoa  
lagunek ta rock and rolla  
San Dios! Kortako  
gure beixek horman gora!  
Egun bi dire ta  
etorten bazara  
beste bat ixengo zara.

Joateko ordua heltzen danien  
azken baojoe sartzen hasten danien  
gorputzek bale esaten dabenten  
gaba gogoratzan hasten nazenien.

Ta ze ondo... sentitzen nazen!  
«Mekago» en dos! Etxera ni pa'Dios!  
ez dago hau gelditzerik  
ez dago gu gelditzerik.

Lagunek ta rocka  
bueno... bueno...  
ta noiz edo behin porrutxu bet  
gerra gogoa  
lagunek ta rock and rolla...



## Besoak zabalik (DONOSTIA, 2009/08/13)

Beittu gorantz  
gorantz, gorago  
hartu arnasa eta  
esan zer sentitzen dozun.

Bota kanpora  
pentsetan zagozen hori  
hartu arnasa eta  
esan helduko zarela.

Eta heltzen zarenien  
hor eukiko nozu  
zeuretzako  
besoak zabalik.  
Nire altzora bazatuz  
hor eukiko nozu  
zeuretzako.

Nire begixek,  
kontuz! Argixeiek dire  
azal zurixe dekot,  
mesedez, labanik ez egin  
Beittu egin nozu  
beittu... beittu barriro  
apurtxu bat falta da  
apur bet... ametsa egi egiteko.

Ta beherantza zoazela  
ez zaratarik egin, ez!  
lo nago ta, itxi lo bakien  
ta behien zagozanien  
ez agurrik egin  
zeuretzako  
hor eukiko nozu.

Berriz nigaine bazatuz  
hor eukiko nozu  
zeuretzako  
lainoen ganetik.

Gailurrerarte bazatuz  
lainoen ganetik  
zeuretzako  
hor eukiko nozu.

Berriz nigaine bazatuz  
lainoen ganetik  
zeuretzako,  
hor eukiko nozu.

Gailurrerarte bazatuz  
lainoen ganetik  
zeuretzako...

## Egunon (GERNIKA, 2009/08/14)

Egun on, fabelak  
egun on, txabola  
egun on sartaldekoeri.

Egune hasten da  
Asia partien  
egun on, sortaldekoeri.

Egun on, Afrika  
egun on, «ghetto»ak  
egun on, hego partieri.

Iparrekoentzat  
hemendik agur bet  
egun on, zagozen lekuен.

Kantu bat egin nahi dot  
mundu guztixentzako  
dagozen mugen gaintek  
benetako kantu bet.  
Ah...! Batzen galitzun kantu bet  
Ah...! Danontzako kantuue.

Hemen Europa ilune, zeueri begire  
egunon... mundue.

## Eztanda egin arte (DURANGO, 2009/09/26)

Jolastu egin nahi dot  
burue galdu arte  
ta zure bulerrak ikutu.

Dekozun azal gozoan  
irristaka bajatzen joan,  
G hori nun dagoen aurkitu.

Ta sentitu  
aiene artien zelan mugitzen zaren zu,  
eta gero  
zure arnas estuen erritmoa segitu  
eztanda egin arte.

Jolastu egin nahi dot,  
aprobetxeu momentue,  
bizi, topera bizi.

Zure uliek korapilotu,  
emon-emon egin eta gero,  
zoroak garela onartu.

Nahi dogune egin geinke,  
hankaz gora jarri mundue,  
erakutsi dakizun guztixe.

Ta sentitu  
alene artien zelan mugitzen zaren zu,  
eta gero  
zure arnas estuen erritmoa segitu  
eztanda egin arte.

Geur izerrak ikusi nahi dodaz,  
barru-barrutik hustu.  
Unibertsoan hegaz egin.

Ta sentitu  
alene artien zelan mugitzen zaren zu,  
eta gero  
zure arnas estuen erritmoa segitu  
eztanda egin arte.

Ta sentitu  
alene artien zelan mugitzen garen gu...

## Urepel

(DONOSTIA, 2009/08/13)

Txoko txiki bat zara  
edur artien  
lotan zagoz, lasaitasunen.

Zuriz mendi partie  
zuriz kaliekin  
etxe bitartietan, ipar haixie.

Ixilik dago dana  
ixilik plaza  
ixilik urrunien  
kanpandorria.

Kanpoan hotz egiten deu  
sutondoetan sartunde  
kantu zaharren artien  
joatzu bizize.

Haixe hotza zara zu  
ur hotz-hotza zara zu  
ur hotzeten Urepel  
ur hotzeten Urepel.

Arratsalde gorriek  
tximinixetan  
arratsalde gorriek  
Behe Nafarroan.

Beheko suek biztute  
leixoetan edurre  
ezkatzetan egurre  
hau zure negue.

Haixe hotza zara zu  
ur hotz-hotza zara zu  
ur hotzeten Urepel  
eta zagozen lekuenean  
ur hotzeten Urepel.

Udaberrixe  
etorríkox jatzu  
eguzki azpixen  
mile kolore  
eguzki azpixen  
bi mile kolore.

Berdeza, mendixek  
zuriz, kaliekin  
gorriz, bixotzak  
Urepel.

Txoko txiki bat zara  
benetan maite zaitut.

## Zeu, zeu, zeu!

(DURANGO, 2009/09/26)

Zeu, zeu, zeu!  
Santuxo plantak egiten dozuz.  
Errez engainenetan dozu,  
zeure alingerutxu aurpegia horrek  
ez zaittu salatzen.

Baina, nik badakit zu nor zaren,  
ondo baino hobeto ezagutzen zaitut,  
zuk niri palu bet haino gehiago  
sartunde dekoztazu.

Zeu! Printzeska kapritxosie.  
Zeu! Hain hotza eta hain dultzie.  
Zeu! Lotzen nauen aramusarie, nire pozoe.

Kartak markatu egiten dozuz  
eta mahai azpitik jokatzen dozu,  
eskua baten larrosak dekozuz,  
labanak bestien.

Lorak nahi dozuz baratzien;  
al! Printzeska kapritxosie,  
baina erein dozuen hazi guztiek  
sasiek dire.

Zeu! Printzeska kapritxosie.  
Zeu! Hain hotza eta hain dultzie.  
Zeu! Lotzen nauen aramusarie, nire pozoe.

Barre gorri erantzun honeri,  
zer egingo deutzozu hurrengoa?  
Suten dagoen edozein unzeri  
heltzen zara bizioagaitik.

Printzeska kapritxosie.  
Hain hotza eta hain dultzie.  
Lotzen nauen aramusarie, zara zu!

## Prest

Eo,  
«ke ba»  
hemen eztau  
begire nabil eta eztot ikusten.

Kale zikifieta arrastorik ez  
barrarik barra ez da agertzen  
bille nabil, bille-bille nabil  
askatasune noz iritsiko zain.


Nahi dot eta ez dekot,  
biher dot.  
Lortu eingo dot neuretzat nahi dot.  
Emoten ez badabe hartu eingo dot,  
itzaroten banago ez dot lortuko.  
Bille nabil, bille-bille nabil  
neure ordue noz iritsiko zain.


Ye, ye  
ni, ni banago  
oraingoan enabe gelditxuko.  
Ye, ye  
ni, ni prest nago.  
Ye, ye  
ni, ni banago  
seigarren martxie sartunde dekot.  
Ye, ye  
ni, ni prest nago.

Bai and bai  
bai, bai.  
Eo, hor zagoz zu?  
Ez zaitut ikusten.  
Ezer ein barik beti bilturtute  
sugien moduen zagoz ezkutete.  
Altzeu hadi! Altzeu-altzeu hadi!  
egunsentixe iritsi aurretik.

Ye, ye  
ni, ni banago  
oraingoan enabe gelditxuko.  
Ye, ye  
ni, ni prest nago.  
Ye, ye  
ni, ni banago  
seigarren martxie sartunde dekot.  
Ye, ye  
ni, ni prest nago.

Ni, ni, ni, ni prest nago.  
Ni, ni, ni, ni martxan nago.  
Da zu zer? Hor zagoz?  
Zu zer? Martxan zauz?





## Behar zaitut

Hementxe zagoz zu  
denboran geldirik  
eurrera eglin ezinik  
leku bardifetan mugitzen zaren lez  
geur errez aurkitu zaitut  
kalietako azerixe  
gauetako erregie  
zu ez zara aldatuko.

Aspaldiko partez «zer egiten dozu?»  
erdi barreka diñozu  
Joder, ze ondo ezagutzen nozun  
beitute batera dakizu  
geur neuk... behar zaitut.

Neuk animali batelez  
neuk oraintxe edo ifioz ez behar zaitut  
neuk yonki baten moduen  
neuk gehixau biler dodalako behar zaitut.

Joder, ze ondo ezagutzen nozun  
beitute batera dakizu  
geur neuk... behar zaitut.

Neuk animali batelez  
neuk oraintxe edo ifioz ez behar zaitut  
neuk yonki baten moduen  
neuk gehixau biler dodalako behar zaitut  
neuk masokiste batelez  
neuk kañile biler dodalako  
neuk behar zaitut.

Neuk, neuk, neuk, neuk, neuk, neuk,  
neuk, neuk, neuk, neuk, neuk, neuk,  
neuk... behar zaitut.



## Kalekatue

Zergaitik xuxurlatzen dozu?  
zuk geuzek aurpegire esaten dozuz  
bizkorra zara humorien, hain sorgiñe maitasunien  
Su txiki-txikixen berotu nahi zaitut  
pil-pilien ipini nahi zaitut  
ta gero jan, jan, jan, jan, jan, jan egingo zaitut eta zuk jan eingo nozu  
ye, ye...

Kalekatue beittutene dozunien  
lotsabakoa burue galtzen dozunien  
Ai... kalekatue holan beittutene dozunien!  
Ta honek ez deko bueltarik  
guk behin hasitte ez dekogu mugarik  
gorputz bi zabal, zabal, zabal, zabal, zabal, zabalik  
dana harrapatu nahirik  
beiejle...

Kalekatue beittutene dozunien  
lotsabakoa burue galtzen dozunien  
Ai... kalekatue holan beittutene dozunien!  
Kalekatue beittutene dozunien  
lotsabakoa burue galtzen dozunien  
Ai... kalekatue beittutene nozunien  
burubako bat zara barruen husten nozunien ye, ye, ye...